



BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA

PROBA LIBREA

GIZARTE ESPARRUA

2022KO AZAROA

DEITURAK ETA IZENA: _____

SINADURA:

Lehen zatia

Galdera bakoitzeko 0,25 puntu.
Puntuazioa, guztira: 4,5.

1. Adierazi egiazkoa (E) edo faltsua (F) den

- ___ Marshall Planaren bidez, Estatu Batuek Europa berreraikitzen parte hartu zuten Bigarren Mundu Gerraren ondoren
- ___ NBEkoa da NATOa
- ___ Europak ekialdera egiten du muga Ural mendiekin.
- ___ “Erromako ibilaldia” martxa bakezale batekin lotuta dago
- ___ Prezipitazio oso urriak eta irregularrak eta tenperatura altuak udan eta ez oso hotzak neguan klima mediterraneoaren ezaugarri dira.
- ___ NBEko organo boteretsuena Batzar Nagusia da
- ___ Autarkia deitzen zaio Francoren gobernuak lehenengo urteetan egin eta autosufizientzia lortu nahi zuen politika ekonomikoari.
- ___ Baias eta Zadorra ibaiak isurialde mediterraneokoak dira.
- ___ Txinako erregimen komunistaren iraultza eta ezarpenaren protagonista nagusia Mao Tse Tung izan zen.
- ___ Bigarren Mundu Gerran, “ardatzaren potentziak” Alemania, Italia eta Espainia izan ziren.

2. Irudiko pieza arkitektonikoa _____ arte-museoa da, _____ arkitekto kanadarrak diseinatu eta _____(e)n kokatua.



3. Bi zutabeetan agertzen diren Euskal Herriaren historiako datu hauek erlazionatzen ditu:

1	Bizkaiko Foru zaharra		Bizkaitar taldeek foru agintariekin aurrez aurre jarri zuen matxinada.
2	Euskadiko lehen elkarte sozialista		Euskadiko gerra zibila
3	Boluetako lehenengo labe garaiak		Sabino Arana
4	Burdinezko gerrikoa		Bergarako besarkada

5	Larrazábalen hitzaldia		Ohiturazko zuzenbidea
6	Gerra karlistak		Euskal Herriko industrializazioa
7	Gatzaren asaldura		Eusko Ikaskuntza
8	Lizarrako Estatutua		Facundo Perezagua

4. 1917ko urrian, Errusian:

- a) Plangintza ekonomikoa hasten da
- b) Stalinek gobernu eskuratu du
- c) Boltxebikeek boterea hartzen dute
- d) Tsarrak Errusia utzi du

5. Definitu, labur, zer diren eta zein diren sektore ekonomikoak. Osatu azalpena horietako bakoitzaren adibideak jarritz.

6. Begiratu koadroari eta erantzun:



A) Zer arte-estilori dagokio pintura hori?

B) Zer gai-mota adierazten du?

C) Nor da koadroaren egilea?

7. Aipatu eta kokatu Kantauri itsasoan itsasoratzen diren 4 ibai:



8. 13. Garapen Iraunkorraren Helburuaren helburua zein den azaldu du laburki.

The image shows the icon for Sustainable Development Goal 13, Climate Action. It consists of a green square with the number '13' in white on the left. To the right of the number, the text 'ACCIÓN POR EL CLIMA' is written in white, stacked in two lines. Below the text is a white graphic of an eye, where the iris is replaced by a stylized globe of the Earth. The entire icon is set against a white background within a larger rectangular frame.


9. Kokatu eta aipatu mapan Europako 7 penintsuletatik lau




10. Erlazionatu bi zutabeetako kontzeptuak:

1	SUEBOAK		LEGEEN KODEA
2	BUCELARIO		KATOLIZISMORA BIHURTZEN DA
3	GUARRAZAR		ALTXORRA
4	RECAREDO		GIZARTE-MOTA
5	SAN JUAN DE BAÑOS		BISIGODA ELIZA
6	EPAITEGIKO FORUA		HERRI GERMANIARRA


11. Irudian ageri den arkua _____ arkua da, eta _____ estilo artistikoaren ezaugarria da.



12. Zer inperiok irudikatzen du irudi hau: _____



13. Behatu hurrengo biztanleria-piramidea eta erantzun galderei:



- Zein biztanleria-talde da nagusi?
a) gazteak b) helduak c) zaharrak
- Nolakoa da populazioaren jaiotza-tasa?
a) altua b) baxua
- Zer piramide-mota da? :
a) progresiboa b) erregresiboa c) geldikorra
- Zer herrialde-mota dagokio piramide horri?
la) garatua b) ez garatuan


14. Zer instalazio militarri dagokio irudi hori, eta zer gerrarekin du zerikusia.



15. Irudiko eskultura _____ izeneko artizarrari dagokio, _____ AN, K.a 27. 500. eta 25. 000. urteen artean datatutakoa. Emakume biluzi horren irudiak hurrengo ezaugarriak ditu (aipatu 3): _____, _____ eta _____.



16. Zer klima-mota dagokio klimograma horri?



17. Zer da irudian agertzen dena? Zein aldi historikoaren adierazgarri da? Zertarako balio zuen? Zein materiales egiten ziren horrelako piezak, batez ere?



18. Ondoren aipatzen den zin testua, Eusko Jaurlaritzako zein karguri dagokio?
"Apal-apalik, Jaungoikoaren eta gizartearen aurrean, eusko-lur gainean zutik eta Gernikako haritzaren azpian, asaben gomutaz, herri-ordezkarri zareten zuen aurrean, nire agintea zintzo beteko dudala zin dagit".

Bigarren Zatia
Irakurri testu hau eta erantzun galderei
Guztira 3 puntu

Munduan, nekazaritzako elikagaien sistemek elkarri lotuta dauden erronka handiei aurre egin behar diete. Horien artean daude gatazkak, muturreko klimak, krisi ekonomikoak edota COVID-19aren inpaktu iraunkorrak. Horiek eragindako domino-efektuak, elikagaien eta erregaien prezioek gora egin ahala, milioika pertsona pobrezia eta gosetera bultzatu ditu mundu osoko herrialdeetan.

Erronka horiek sistema ekonomikoetatik datoz nagusiki, garapenaren hazkundeari lehentasuna eman baitiote, ingurumena eta landa-biztanleriaren ongizatea kontuan hartu gabe. Herrialdeek aurrean dituzten erronkak gainditu ahal izateko, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren etengabeko bilakaerari esker sortzen diren aukera ugariak aprobetxatu behar dituzte, aldi berean gure elikadura-sistemen helburu anitzen arteko oreka bermatuz; helburu horien artean daude, besteak beste, guztientzako dieta nutritiboak izatea eta klima-aldaketara egokitzea.

Albiste ona da gure eskura ditugula ikuspegi zientifiko, teknologia eta praktika ugari. Hala ere, ikuspegi horiek, berez, ez dira nahikoak. Teknologia sistema sozial eta ekonomikoetan integratuta daude, eta gosea eta desnutrizioa desagerrarazten laguntzeko, arau-esparru batzuekin batera joan behar dute, pertsonen begira daudenak eta erakunde sendoek eta gobernantza onak emandako ekitatea eta jasangarrtasuna sustatzen dutenak, borondate politikoaren babesarekin.

Ekonomia aurreratuek, edo hirugarren sektorea nagusi dutenek, nekazaritza-sektorean eskulana galtzeko joera dute, nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboen ondorioz izandako produktibitate-hazkundeagatik eta lan guztietan eta landa-kudeaketan egiten den teknologiaren erabilera handiagatik. Jokabide horrek, epe ertainean eta luzean, landa-ingurune despopulaziora eramaten du, baldin eta lanpostuak sortzen ez badira beste sektore batzuetan, hala nola industrian edo zerbitzuetan, biztanleei landa-ingurunean bizitzen jarraitzeko aukera emateko.

Egungo joera da zerbitzuak eta industria hiri handien edo komunikazio korapiloen inguruan kontzentratzea eta landa-ingurunea husten joatea, eta horrek, aldi berean, era guztietako zerbitzuen eskaintza murriztea eta herri txikienetan daudenak degradatzea dakar. Biztanleria galtzen duten landa-eremuei "hustutako Espainia" deitu zaie, norbaitek edo zerbaitek nahita hustuko balitu bezala. Prozesu naturala da, aurrerapen teknologikoari lotua, eta, ondorioz, biztanleria erakartzeko gaitasuna izango lukeen jarduera ekonomikorik gabeko lurralde-eremuak abandonatzeari lotua.

Ekimen eta inbertsio asko egin dira egoera hori arintzen saiatzeko, hala nola landa-garapeneko taldeei lotutako inbertsioak; landa-turismoa, naturakoa edo abenturakoa eta ehiza sustatzea; eta jatorri geografikoari lotutako elikagaiak babesteko figura jakin batzuk, ekoizpenak eta, beraz, biztanleria lurraldean atxikitzen dituztenak.

Horrela, nolabaiteko jarduera bati eustea lortu da, batez ere eremu jakin batzuetan, baina beste batzuetan ez da jarduera ekonomiko bat sortzeko pizgarririk edo proiektu berririk sortu, eta bizkor husten ari dira.

GALDERAK:

1. datzi izenburu bat artikulurako..
2. Adierazi zein den testuaren ideia nagusia.
3. Idatzi eta garatu bi proposamen labur "Espainia hustua" deiturikora herritarrak erakartzeko":

Hirugarren zatia
Lan mundua
0,5 puntu galdera bakoitza.
Puntuazioa, guztira: 2,5 puntu.

1. Azaldu, labur, “ongizate-estatu” terminoaren esanahia.

2. Definitu, labur, “prebentzioko ordezkaria” hitza.

3. Zer esan nahi du “aurrerakin” hitzak?

4. Zer esan nahi du “telelana” hitzak

5. “Greba” terminoa definitu